

...eta

Kitto!

909 zkio.
2014-XI-21

Aho gozamenerako sāsoi betean



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo komunitaen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza. New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:

10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Hondarribian alarde bakarra dago udalaren baimena duena; bestea manifestazio bat da. Alarde ofiziala herrikoa, legala eta herriko adierazpen nagusia da eta hondarribiarrek ulertzen duten bezala errespetatu behar dugu. Tentsiorik izan ez dadin, Jaizkibel konpainiak atzetik desfilatu dezake, alarde ofiziala ikusi nahi dutenek ez dezaten lehenago alarde parekidea ikusi behar izan"

(AITOR KEREJETA,
HONDARRIBIKO ALKATEA)

"Zientzialaria izateko objektiboak izan behar duzu; pentsamendu hori oso hedatua dago, eta objektiboak gizonezkoa da. Emakumea gehienbat subjektibotasunarekin eta emozionaltasunarekin lotzen da. Ikuspegi horrek aditzera ematen du zientzia bera agian ez dela horren neutroa."

(ENKARNI GOMEZ
EHUKO FISIKA IRAKASLEA)

"Ikerketa datuek diotenez herrialde industrializatuetan farmakoak dira heriotzen hirugarren kausa, infartoen eta minbizien atzetik, azken urtean istripu garun-baskularrei aurrea hartuta. Espainia da, EEBB-ekin batera, lehena munduan sendagai hipnotikoak, lasaigarri eta depresio-kontraoak kontsumitzen"

(JOAN RAMON LAPORTE,
FARMAKOLOGIA KATEDRADUNA)

"Europako landaguneetako hegaztien populazioak beherakada handia izan du 30 urte hauetan: 431 milioi hegazti gutxiago daude. Batez ere, XX. mendeko nekazaritza eta abeltzaintza ustiaketak eragin du hori: izan ere, lurren kudeaketa industrialak degradatu egin du bioaniztasuna. Ingurua homogenea da orain: gaur egun, baso, soro eta abereek ez dute osatzen lehen egiten zuten mosaikoa. Kantua isiltzeko bidean da"

(JUAN ARIZAGA,
ARANZADIKO ORNITOLOGOA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KATAMIXAR.- Katagorri. "Hango intxaurrak, katamixarrak batzen dittu".

KATAMOTZ.- Tigrea. "Ez andrazkua, katamotza zidurixan bere umieri ikutu zetsenian".

KATAR.- Katu arra. Zentzu figuratuan andrazalea, gaztelerazko 'donjuan'. "Katarra herrira bueltatu danetik andrakume guztiak aztorauta dabiz".

eskutitzak

DEBEKUEAN AURREAN, JAI HERRIKOIA AURRERA

Idatzi honen bitartez, San Andres bezperarako antolatutako genuen egitaraua bertan behera geratu dela adierazi nahi dizuegu, Udalaren debekua dela medio. Aurten ere, aurreko urtean bezala, proposamena helarazi genion Eibarko Udalari elkarlanean aritzeko, hainbat ekimen eta egun guztiko egitaraua proposatuz azaroaren 29rako. Zerbait alditan eurekin bildu ondotik, garbi erakutsi zuen Udalak jarrera guztiz itxia, elkarlan proposamen orori uko eginez, eta eskaini zizun gauza bakarra espazioa erabiltzeko aukera izan zen. Zailtasunak zailtasun, egitarauarekin aurrera egitea erabaki genuen ditugun baliabide ezberdinak erabiliz (oholtza lortu, taldeak ordaindu, karpa atondu...). Baina Udalarentzat hau ez da nahikoa izan eta, kultura teknikariaren txosten ezkoraren ostean, Gobernu Batzarrek 22.00etatik aurrera karpa erabiltzeko debekua ezarri digu.

Argi ikusten dugu horren atzean dagoena ez dela erabaki "tekniko" bat, politikoa baizik: bi ereduren arteko talka. Alde batetik, Udalak Eibarko herriari eskaintzen dion eredua, formula zaharren errepikapenean eta kontsumoan oinarrituta dagoena. Eta, bestetik, Jaixak Herrixak Herrixandako ekimenak eskaintzen diona, modu herrikoia eta parte-hartzaileen bidez antolatzen dena eta jai euskaldun eta parekideak helburu dituena. Gainera, ez diogu inori aterik ixten, eta edonork har dezake parte gure batzarretan. Debeku horrek arduradun zehatzak ditu: Esther Kareaga kultura zinegotzia eta Pedro Escribano zerbitzu zinegotzia, betiere Gobernu Batzordearen oniritziarekin. Amaitzeko, antolatuko ditugun ekimenetan parte har dezazuen egiten dizuegu gonbita. **Debekuen aurrean, jai herrikoia aurrera.**

JAIK HERRIXAK HERRIXANDAKO

OSPATU DEIGUN EIBARREN EUSKERIAREN EGUNA!

Abenduaren 3an Euskeriaren Eguna ospatuko dogu Eibarren, Euskarak 365 egun goiburua hartuta. Hori dala-ta, eibartar guztiak egun horretan parte hartzea gonbidatu nahi dugu: herritarrak orohar, kultur, kirol eta musika taldiak, ikastetxiak, dendari eta tabernarixak... Arratsaldeko 19.00etan Toribio Etxebarriako ambulatoxio pareko lorategian alkartuko gara, aldarrikapen-bertsua kantatu eta gero, kalejiran, danok alkarrekin Untzagara juateko. Parte-hartzaile argia emoten daben

zeozer eruateko eskatu nahi detsegu: kandelak, linternak, frontalak, bengalak... Untzagan, harmailen aldiari, kandlekin esaldixa osatuko dogu, eta behin hori egin da, "Behin betiko kantua" abestuz eta "Euskaraz bizi nahi dut" kantuen doiñuarekin dantza egiñez amaituko dogu eguna. Apuntaizue ondo eguna zuon agendetan, ia Untzaga plazia euskaltzalez betetzen dogun, euskeraz bizi nahi dogula aldarrikatzeko!

EIBARKO EUSKALGINTZA



Eusquera Elkarte

ARGITARAZTZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekarriaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
(...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Korta sarixa Manuel Iraolagoitiarendako

Datorren asteko martitzenian Gasteizen banatuko dituden Korta Sarixetan erreko-
nozimendua egingo detse Manuel Iraola-
goitia enpresarixo eibartarrari, aurtengo
sartuak izateko aukeratu dituden Teodoro
Cid Chamorro, Xabier de Irala Estevez eta
Ricardo Garate Kruzelegirekin batera. Ma-
nuel Iraolagoitia Oregik (Eibar, 1938) Ar-
merixa Eskolan ikasi eban eta 1958xan,

Juan Marcos Lopez de Gereñu eta Alberto
Eibarrekin batera automozioñorako biha-
rrak egitten ditudan Microdeco enpresa
sortu eban eta, bere enpresa ibilbidian
behin baiño gehixagotan jaso dau erreko-
nozimenduren bat. 2013an bertan Europa-
ko EFQM sarixa eskuratu eban, Erantzuki-
zun Sozial Korporatibua bereziki aittatuta.
Korta Sarixa emonda, Eusko Jaurlaritzak



lau gizoneri enpresa arluan egindakua
garrantziza aitortu eta eskertu nahi detse.

Jaialdi berezixa eguaztenerako El Corte Inglesian

Datorren eguaztenian, hillaren 26xan, El Corte Inglesak merkataritza gunia za-
baldu ebala bost urte beteko dira eta, hori ospatzeko, 18.00etan hasiko dan jaialdi-
dixa preparau dabe. Dendako fatxadia apaintzen dagaizen argiak ixotziarekin
batera ekingo jako jaixari eta, jarraixan, Ipuru dantza garaikidekuak egun ho-
rretarako bereziki sortu daben koreografixa erakutsiko dabe. Eta bosgarren ur-
tebetetze eguna agurtzeko, bezeruen artian banatzeko egingo daben tarta erral-
doia jateko aukeria egingo da.



Zentrua zabaldu zebe bihargifetako taldia.

Egunian bertan ez eze, beste
egun batzuetan be urteurrena osp-
patzeko ekitaldi berezixak egingo
dittue: bixar arratsaldian DJ batek
2. solairuan musikia eskinduko
dau; martitzenian, 17.30xetatik au-
rrera Eibar foball taldeko Albento-
sa eta Javi Lara kirol saillian egon-
go dira, nahi dabenari txartela si-
ñatzen; hillaren 27xan, 18.30xetan
Peppa Pig bisitan egongo da,
umiekin argazkixa egitteko prest
eta hurrengo egunian (28xan), ba-
rriz, gauza bera egingo dau Pupik;
programia biribiltzeko, abendua-
ren 4an gizonen desfilia egingo da-
be. Horrekin batera, dendan zeo-
zer erosten daben artian opari-
xak banatzeko zozketak eta beste
promozioño berezi batzuk antolatu
dittue.



Ainhoa Mesa kooperantia Perun kakaoa ekoitzen daben nekazarixeri lagundu detse proiektuan.



Egoaziako kooperantia bueltan

Aurreko barixakuan hiru hillebete Perun emon ditudan Ainhoa Mesa kooperantia Egoaziaren buleguan egon zan, handik bueltau barri eginda-
ko biharraren barri emoten: "Horrelako espe-
rientzia bizitzeko eta han topau doten jende zo-
ragarria ezagutzeko aukeria izatiagaitik oso po-
zik nago eta jende guztiak bizitzan behin horre-
lako zeozer bizitzeko aukeria euki biharko leu-
kiala pentsatzen dot. Beste kultura batzuk eza-
gutzian burua eta bihotza zabaldu egitten dira,
ez hankarik ez bururik ez daken aurreiritzi mor-
dua desagertarazten dira eta, jakiña, gauza mor-
dua ikasten dira". Kooperante gaztia Perun kaka-
oa ekoitzen daben nekazarixeri laguntzeko
proiektuan jardun dau biharran. Hain zuzen,
urriaren 18xan Untzagan egindako bazkari soli-
darixuan batutako 4.800 eurua proiektu horre-
tarako bideratu dittue eta dirua Perura bialduta
daguala azaldu dabe Egoaziakuak.

Dendarixak be Euskeraz Primeran!

Tabernarixekin egindakua harira,
...eta kitto! Euskara Elkarrekin herriko
dendetara zabalduko dau Euskeraz
Primeran! kanpaiña. Bat egitten da-
ben dendak gitxienez lehelen-
go berbia euskeraz egitteko
konpromisua hartuko dabe.
Dendarixak euskeraz egitten
dabela jakittek, bezeruak kan-

paiñako pegatina bereizgarria ikusi-
ko dau dendan. Datorren astian hasi-
ko dira ...eta kitto!-kuak herriko den-
detara bisitak egitten.





1937xan jaixotakuen bazkarixa

Aurreko asteko barixakuan batu ziran 1937xan jaixotakuak, alkarrekin bazkaltzeko. Erretra-tuan ikusten ditzuzuenak aurten 77 urte bete edo beteko ditzue eta, eguna edarto zelan pa-sau eben ikusitta, argi dago sasoi betian daguzela.

Odol-emoille "haundixeri" omenaldixa

Gipuzkoako Odol-emoillien alkartiaren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldi berezixa ospatu zan azaruaren 15ian Donostiako Kursaal. Ekitaldixa beraien odola 100 aldittan baiño gehi-xagotan eskindu daben



Euskal Herriko odol-emo-taillieri omenaldixa egi-tteko aprobe txau eben eta omenduetako bat Jo-se Maria Lupeña eibarta-rra izan zan. Omenaldixa jaso ebeneri garaikur ba-na oparitu zetsen eta, eki-taldixa ezinhobeto amai-tzeko, Donostiako Orfe-oiak kantau egin zetsen.

autuan

NEGUKO ERROPEN PREMIÑIA

Caritasen roperua ipiñi dabe martxan Eibarko boluntarixo ba-tzuk eta jendiari neguko erropen eta oiñetakuen premiña dakela emon nahi detse aditzera, "batez be umiendako". Erropak eta za-patak ez eze mantak, jaixoberr-iendako kumak, aulkixak, kotxe-ka-potak... jasotzeko prest dagoz. Zeozer eruan nahi detsena, San Andres elizan daken lokalera juan leike (astelehen eta marti-tzenetan, 09.00etatik 13.00era) edo, bestela, 943202509 telefo-nora deittu. Horrekin batera, ba-ten batek gaixuendako bereziki preparautako ohe artikulatua bihar badau, eurak horrelako bat lagatzeko moduan dakela azaldu dabe.

1945-IAN JAIXOTAKUAK

Abenduaren 4an batuko dira urte horretan jaixotakuak alkarrekin bazkaldu eta eguna jai giruan emoteko: Untzagan argazki ofi-ziala etara eta gero, Arratera au-tobusian igo eta Kantabria jate-txian bazkalduko dabe. Jarrai-xan, dantzaldixa antolatu dabe. Juan nahi dabenak 65 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 2095 5035 00 9114331989 zen-bakixan.

kamisetak 12 euro
sudaderak 25 euro

bazkideek 2 euroko deskontua bi produktotan



eta kitto

...eta kitto! Euskara Elkarteak Urkizu 11
komunikabideak@etakitto.com 943 20 67 76 - 943 20 09 18



Sare sozialen bitartez argazki hau partekatzen duzuenon artean, ZOZKETA egingo dugu abenduaren 3an, Euskeraren Egunean.

facebook.com/etakittoaldizkaria

@etakitto

Saria: eta kitto!ko sudadera + kamiseta

Eraikuntzari eskindutako azokia



Aurreko asteburuan Garapen Pertsonala Azokarekin egindakaren bide-tik, datorren asteko eguenian eta barixakuan, egun bixetan Eraberritze eta Birgaitze Lanetarako I. Azokia hartuko dau Untzagako karpak, 17.00etatik 21.00etara bittartian. Udalak sektoreko enpresa txikixak eskintzen dittuenak ezagutzera emoteko asmuarekin antolatutako azokan, bestiak beste, gure herriko eraikuntza gremixuak eta arkitektura zein diseñu estudixuak hartuko dabe parte eta, gaiñera, eskintza berezixak egingo dittue. Ferixan parte hartzeko izena emon dabenak hónetxek dira: Ulmar, Beltran Ascensores y Montacargas, Argitel, Emankor Taldea, Bo-



sark Arkitektoak, Arkigreen, Industrias ITTE, Marmoleria Aperribay, Usobiaga&Otermin Arkitektoak, JG Arkitektoak, Ainara Vesga, Decoraciones Fran, Dicorges, Loren Ibazeta Lapeyra 'LIL', Epoca-Goro, Desvan, Mikel Elorza Interiorismoa, Estudio 1964, AJT Zihurtasuna, Debegesa eta Mogel auzoko Errehabilitaziño Proiektua.

Merkataritzako plana

Eibarko Merkataritza Suspertzeko Plan Berzi barrixa egingo dabela emon eben aditzera astelehenian, udaletxian egindako prentsaurrekuan. Eusko Jaurlaritzak emondako 18.000 eurueri esker, herrixan sektoriaren egoeria zelakua dan antzeman eta, batez be, daguazen hutsunieri konponbidia billatzeko proposamenak biltzeko ikerketia egingo dabela aurreratu eben.

Logistika zerbitzu barrixa

Hapiick zerbitzu logistiko barrixa aurkeztu dabe hilla-ren hasieran Intelligent Delivery enpresakuak Ermuan, Izarra Centerren daken egoitzan. Haritz Elortza eibartarrak beste lagun batekin batera abiarazi daben zerbitzuari esker, mezularixak paketiak entregatzeko eukitzen dittuen arazuak saihesteko, Hapiick-ekuak paketiak jasotzeko hamar puntu preparau dittue, hórretako bat Eibarko Kantoi gasolindegixan: zerbitzua erabiltzen dabenak paketiak ailegatzen danian abisua eta kodigua jasotzen dittu mugikorrian eta komeni jakonian paketiak jasotzeko aukeratu daben tokira juanda han hartu leike. Zerbitzua erabiltzeko nahikua da www.hapiick.com helbidera sartzia eta izena emotia.



Gipuzkoako jubilauren billeria

Martitzenian hilleroko billeria Eibarren, Kulturalian egin eben Duintasuna, Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsiodunen alkartekuak. Esku artian dittuen artian, arreta berezixa eskindu zetsen Madrildo gobernuak pensiuetarako iaz iragarrittako %0'25eko igoera proposamenari. Izan be, igoeria "miserialia" dala pentsatzen dabe: "Proposamenari jarraitu ezkeru, 600 euroko pensiuua dakanari 1'5 euro baiño ez detsez igoko". Horren aurrian "azken urtiotan galtzen juan garan eros ahalmena berreskuratzeke" biharrian segitzeko asmua dake. Billeria amaittu eta jarraixan, Untzagara juan ziran alkarretaratzia egittera eta, ondoren pintxopoteua eta bazkarixa eginda agurtu eben eguna.

Aire berriak!

Estaziño, 4
943 254776

Khôl Estilistak

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



“Los libros del Olivo” argitaletxeak kaleratu du liburua. Ohizko salmenta lekuetan aurki daiteke.

AZAROAREN 25a emakumeen kontrako indarkeria gogoratzeko nazioarteko eguna da. Hori dela eta, hurrengo asterako ekitaldi ugari antolatu ditu Eibarko Udaleko Berdintasun Arloak Eibarko Emakumeen Mahaiarekin elkarlanean. Egitarau mamitsu honen adibide gisa, Azaroaren 27an, osteguna, Leticia Martínez-Alcocer izango da Portalean “Viaje al centro del corazón” liburua aurkezten.

LETICIA MARTINEZ-ALCOCER, “Viaje al centro del corazón” liburuaren egilea

“Sexu-abusuak gainditzeko ezinbestekoa da isiltasuna apurtzea”

- Nola sortu zen liburu hau egiteko ideia?

Orain dela 20 urte, txikia nintzenean, sexu-abusua pairatu nuen. Urte askotan “ahaztuta” eduki nuen, nire oroimenaren txokoren batean gordeta. Horrela 10 bat urte igaro ziren. Bapatean oroitzapenak nire burura etorri ziren eta depresioak hasi ziren. Laguntza terapeutikoa behar izan nuen, baina benetan lagungarri suertatu zitzaidana gertatutako guztia onartzea eta hitzez adieraztea izan zen.

Beti izan dut idazteko zaletasuna eta erraztasuna eta, gertatutakoaz jabetzen nindoan bitartean, nire sentipenak papelean isladatzen hasi nintzen. Inoiz ez dut izan libururik idazteko asmorik, baina lagun batek bultzatuta, idatzi guztiak bildu eta publikatzera animatu nintzen.

- Zein da liburuaren helburua?

Pentsatzen duguna baina jende gehiagok sufritzen ditu sexu-gehegikeriak, baina zorritzarrez gai hori oraindik tabu da. Gure gizarte kontzientziatzeko eta errealitate hori aldatzeko oso inportantea da arazoari bu-

ruzko isiltasuna apurtzea eta nik, liburu honen bidez, neure aportazioa egin nahi izan dut. Gainera, abusu bat pairatu duzunean oso garrantzitsua da konpartitzea, isiltasunetik irtetzea, horrelako zerbait jasan duen jendearekin harremanak izatea.

- Zer uste duzu egin daitekeela sexu-abusuen kontra?

Esan dudan bezala, zoritzarrez sarri gertatzen dira gehiegikeria sexualak. Ezinbestekoa ikusten dut gurasoek eta irakasleek prebentzioan lan egitea eta abusu-sexualen sintomak detektatzen jakitea. Haur batek abusu bat pairatu duela esaten badigu, funtsezkoa da sinistea eta gertatutakoa behar den lekuan salatzea. Erakundeek ere badute zeresana guzti honetan: gizarte patriarkala desegiten joateko estrategiak bilatu behar ditugu denon artean. Honetaz gain, abusu gure gain ezagutu dugun pertsonen ere zeresan handia daukagu; isitasunetik ihes egin eta gure esperientzia besteekin partekatzea oso lagungarria izan daiteke.

Orain dela 31 urte Madril en jaio bazen ere, haurtzarora eta gaztaroko lehenengo urteak Eibarren igaro zituen Leticia. Salamancan eta Deuston Historia ikasi ondoren Madril en historia- eta kultur-ondareari buruzko Masterra egin zuen. Madrilgo Mapfre Fundazioan ibili da lanean kultur-ekitaldiak eta batez ere erakusketak antolatzen. Udaz geroztik Eibarren dago eta bere nahia hemen lan egin ahal izatea da.



EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA GOGORATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroak 21

- Bortizkeria matxistari buruzko **TERTULIA** LILA ANDRETXEAn: 18:00.

Azaroak 25

- “AZAROAK 25 ETA GENERO INDARKERIA” **INFORMAZIO KARPA** UNTZAGAN: 10:00-13:00 eta 16:00-19:30. *Antolatzailea: Mujeres al Cuadrado Emakume Elkarte.

- **ELKARRETARATZEA** UNTZAGA PLAZAAn: 19:00.

- **ANTZERKIA** “LA MÁQUINA DEL DUEÑO”, Plataforma TIRANTEren eskutik PORTALEKO ARETO NAGUSIAN: 20:00.

Azaroak 27

- “VIAJE AL CENTRO DEL CORAZÓN” **LIBURUA**ren aurkezpena. UDAL LIBURUTEGIAN: 19:00.

Azaroak 29

- **BELDUR BARIK JAIALDIA** URRETXUN. Beldur Barik lehiaketara E.H.Elkaragoan aurkeztutako bideoak ikustea eta sari banaketa.

Sukaldari gazteak pil-pilean bikain

Asteburu honetan helduek egingo duten bezala, aurreko domekan herriko ikastetxeetako gazteek osatutako hogeitasei bikotek Untzagan bakailoa prestatzen jardun zuten, Bakillauaren Kofradixiak antolatutako Eskolarteko Bakailao Lehiaketaren hamaikagarren edizioan.

Urteroko martxari jarraituta, antolatzaileak lehiaketaren aurretik, astean zehar parte hartzeko izena eman zuten bikoteekin batu ziren, lehiaketan prestatu beharreko bakailoa banatzeko eta pil-pila nola

prestatu azaltzeko eta, lehiaketaren amaieran aurkeztu zituzten kazolak ikusita, argi dago belarriak zabal-zabalik entzun zituztela Kofradixiak emandako aholkuak. 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutilentzat antolatutako lehiaketako sariak banatzeko, adinaren arabera maila bi bereizten dituzte: 12-14 urte bitartekoen mailan, txapeldunak Mogel Isasiko Alejandra Fernandez eta Goizeder de Castro izan ziren. Eta 14-16 urte bitartekoe-tan, berriz, Aldatzeko Marina Heinsohn eta Ariana Joga na-



Lehiaketako irabazleak euren sariekin. ANDER AZPIAZU

gusitu ziren. Azken honek, gainera, badaki irabaztea zer den, lehiaketan parte hartu zuen lehen bi urteetan etxera sariarekin bueltatu zen eta. Iaz ez zuen saririk jaso, baina aurten berriz ere garaikurra eskuratu du bere lagunarekin batera prestatutako bakailoari esker. Sari bi horiekin batera, antolatzailuek ikastetxe onenari ematen diote saria Aldatzek jaso zuen.

San Andres jaien bueltan egiten den lehiaketak jarraitzaile ugari dauzka eta, aurten ere, sukaldari gazteak nola moldatuko ziren ikusteko irrikitan zeuden guraso eta lagun mordo bat batu ziren udaletxeko arkupeetan.

Saria jaso zuten neskei galdetuta, irabazteko "sekretuak",

besteak beste, "publikoarekin arretarik ez galtzea, sua kontrolatzea eta, jakina, sukaldarian ibiltzea gustokoa izatea" aipatu zituzten. Ikasleek prestatutako kazolak probatu eta puntuatzeko ardura Ernesto Etxabe, Elena Valle eta Jorge Arregi epaimahaiko kideek izan zuten eta, lan horiek amaitzean esandakoaren arabera, "sukaldari gazteek, orohar, maila ona daukate, helduekin lehiatzeko modukoa". Hala ere, askok hankasartze berbera egiten dutela gaineratu zuten: "Bakailoa prest daukatela ikusten dugunean, berotzen ez jarraitzeko esaten diegu, baina bueltatu orduko irakiten izaten dute eta, horren eraginez, bakailoa lehorregia gertatzen da batzuetan".



Badira bakailoaren sekretuak jabetu direnak. ANDER AZPIAZU



Gorrotxategi teilak eta zigarretak • Karramarro errusiarra %100 txaka-hankak • Rosara pikillo piper-saltsa • L'Himalayen gatz larrosa • 2011ko Marin Codax albariñoa • 2013ko Gran Feudo ardo gorria • El Navarrico zainzuri zuria 6-8 ale • Absolute Level vodka • Chivas Regal whiskia (12 urte) • 2005eko Gaudiim Erreserbako ardo beltza • Gin Mare gin-a + kopa • Castaing foie gras osoa • Gorrotxategi turroi gogorra • Club Gourmet txokolate-opilak • 2011ko Monte Real krintza beltza • Amor de Madre Errioxako ardo beltza • Abadia S.Quirce Erreserbako ardo beltza • Anta 16 krintza beltza • Dantza pikillo piper osoak estra • Pedro Luis alkatxofa-bihotzak • Madari osoa Coquet ardoarekin • Arkume-izterra Cascajares oliba oliotan • Cascajares izter errea • Top Jabu urdaiazpiko ondua • Don Iberico ezkur-iberikoak • Julian Martin ezkur-txorizo iberikoa • Julian Martin ezkur-saltxitxoi iberikoa • Delicass ahate-antzara-gibela • Martiko ahate-urinekoa latan • Covap ezkur-solomoa sobreetan • Eci ahate-urdaiazpikoa • Eci iberikoak • Vasco-Navarra ardi-gazta latan • Covap ezkur-urdaiazpikoa sobreetan • Vasco-Navarra Idiazabal gazta • Lau 1724 tonika • Cuvee Bruno Paillard Brut Premiere xanpaina • Moet Chandon Brut Imperial xanpaina • Remy Martin cognac-a • 2007ko Marques Riscal Erreserbako ardo beltza • Rose Collet Brut xanpaina • Azpilicueta krintza beltza • Glorioso krintza beltza • Arienzo krintza beltza • Verdejo Blume ardo zuria • Duron krintza beltza • Ederra krintza beltza • Illy kafe ehoa • Soles de Gredos hostopilak • Guyliau itsas-fruituak • La Higuera piku-bonboa • Peñin artisau-txokolate esneduna • Peñin artisau-txokolate zuria • El Caserio piñoidun karamelu bigunak • English Breakfast Twinings te-ak • Blueberry Clair de Lune arandano-bonboiak • Peñin almendra-teilak • Montesori askotarikoak • Peñin trufak • Tortiera Costurero Dacolte panettone-a • Dacolte panettone-a • Toque Espezia-gin&tonic-a • 1880 almendradun txokolate-turroia • Vega Carabana oliba-olio birjina estra • Casti. Tabernas oliba-olio birjina estra • Vicens jogurt eta almendradun turroi kurruskaria • Alicante 1880 turroia • Artesania almendradun txokolate-turroia • Doña Jimena txokolatetz betetako almendrak • Suchard txokolate-turroi kurruskaria • Mata gabonetako askotarikoak • Valor txokolate-turroia (egurrezko kaxa berezia) • Jijona 1880 turroia • Led Inves I4614fhd gr 46" telebista

2.000 euroko **Gabonetako OTARRA** GAUR (19.00-21.00) BIHAR (13.00-14.00) KALEAN EROSTEKO AUKERA

SALMENTA LEKUAK: - AEK euskaltegia - Arriaundi OKINDEGIA - Bolintxo OKINDEGIA - Depor TABERNA - Ego Gain TABERNA - El Corte Ingles - ...eta kitto! - Echitto - Urkizu - Guridi TABERNA - Isasi OKINDEGIA - Izadi LORADENDA - Kultu TABERNA - La Golosina - Maria Ospitxal (Calbeton eta Jardiñeta) - Mugika HARATEGIA - Ogi Berri Urkizu - Otegui HARATEGIA - Udal Euskaltegia - Untzaga PRENTSA - Zabaleta OKINDEGIA - Zubi Gain TABERNA

<p>Gabonetako OTARRA</p> <p>Prezioa: 1€</p> <p>Zbk:</p>	<p>Gabonetako OTARRA</p> <p>2.000 €ko</p> <p>balioa duen Otarra</p> <p>Zazketa 2014ko abenduaren 17an egingo da</p> <p>Prezioa: 1€</p> <p>Zbk:</p>	<p>Euskara Elkarte</p> <p>Holako 17 egunetan agertzen da bako. erabiltzeko eraberriz erabiltzeko.</p>
---	---	---





Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefona: 943 25 61 00

POLICLINICA GIPUZKOA

Datorren azaroaren 26an, eguaztenean, Portaleko areto nagusiak bertigoak eta entzumen-galerari buruzko hitzaldia hartuko du arratsaldeko 19.30etatik aurrera, **Osasun Ikasgelaren** barruan. **XABIER ALTUNA** eta **CARLOS SAGA** izango dira hizlari eta sarrera libre da, lekua bete arte.

Policlinica Gipuzkoa da bertigoak eta entzumen-galeraren kontrako KIRURGIA AURRERATUA egiten duen Espainiako zentro pribatu bakarrenetakoa.

Telefona: **943 00 28 00**

www.policlinicagipuzkoa.com



ALTUNA eta SAGA doktoreak

Bertigoen eta entzumen-galeraren kontra

Altuna eta Saga sendagileak espezialistak dira bertigoa eta hipoakusia bezalako patologien tratamenduetan. Bertigoa sistema bestibularren funtzioa, hau da, *"mugimenduak sentitzeko ardura duen barne-belarriaren zatia"*, aldatzen denean gertatzen den biraketa-sentsazioa da. Hala ere, beste sintoma batzuk, hala nola mar txaren alterazioa, ezegonkortasuna edo garraibideetan gerta daitekeen zorabioa, belarriko gaixotasun batengatik ere sor daitezke. Hipoakusia entzumen-galera da. *"Entzumen-galera gradu ezberdina daude: arina, gogorra edo sakona. Hipoakusia gogorra edo sakonari gorrieria deitzen zaio"*, diote Poliklinika Gipuzkoako Xabier Altuna eta Carlos Saga espezialistek.

Bertigoaren sintomei dagokienez, *"sistema bestibularreko alterazioekin lotutako klinika askotarikoa izan daiteke"*, baita sintomak ere: biraketa-sentsazio bizia, goragalea eta gonbitoa eragiten dituen krisi zorrotzetik hasita -pazientea larrialdietara joan behar izaten da-, hila beteak irauten duen ezegonkortasuneraino -pazienteak ezin du bere jardura soziala eta laborala egin-. *"Gaixoak gaitz hau antzematen duen modua eta horrek eragiten dion muga asko aldatzen da gaixo batetik bestera"*, diote adituek. Pertsona batek hipoakusia edo entzumen-galera duenean sintomak aldatu egingo dira galera horren graduaren arabera, baina baita adinaren arabera ere. Umek, adibidez, hizkuntza ikasterako orduan atzerapena izango dute, eskola errendimendu baxuagoa eta, kasu larrietan, mihi-garapen eza. Hirugarren adinean, *"pazienteek atzera egiten dute, elkarrizketetan gutxiago hartzen dute parte, depresioa sarriago izaten dute eta hondatze kognitiboa garatzeko arriskua handitu egiten da"*, azaldu dute.

Epley maniobra bertigorik ohikoena, hau da, posizio-bertigo paroxistiko onbera, sendatzeko teknikarik erabiliena da. 80. hamarkada amaieran jakin zen PBPO zuten gaixoez zergatik jasaten dituzten bertigo-krisi gogorrak ohean etzan edo bertatik jaikitzerakoan, edo lepoa makurtu edo luzatzerakoan: barne-belarria betetzen duen likidoan mikrokristalak sortzen dira eta horiek mugituzerakoan sistema bestibularra minberatzen dutelako. *"Horrela amaitu zen bertigo zer-bikalaren legenda, ordura arte hori zen diagnosirik ohikoena"*, adierazi dute Altunak eta Sagak. 1992. urtean, John Epley-k erakutsi zuen *"pazientearen burua, sekuentzia zehatz batean, posizio egokietan jartzen badugu, berehala desagertaraziko ditugula gaixotasun horren ondorioak. Gaur egun, patologia hori 10 minutuko maniobrarekin sendatzeko gai gara, gutxienez 4 pazientetatik 3tan"*, diote.

Kirurgia premiazkoa izan daiteke bertigo-kasu batzuetan, baina *"zorionez, ez da ohikoena eta sintomak eta horiek eragiten dituzten gaixotasunak tratatzeko modu asko daude"*. Kasurik gogorretan eta ohiko tratamenduekin sendatzeko zailak direnetan, teknika kirurgikoak erabil daitezke, eta oso emaitza onak ematen dituzte, gainera. *"Hipoakusiako kasu asko kirurgia bidez tratatzen dira. Horretarako, garrantzitsua da entzumen-galera zerk eragin duen jakitea"*. Ebakuntza errazak dira, Altunak eta Sagak kirofanoan sarri egiten dituztenak. Inplantea jarri behar denean ebakuntza konplexuagoak izaten dira. *"Poliklinika Gipuzkoan emaitza bikainak lortzen ditugu teknika horiei esker, eta bertigoari eta entzumen-galerari aurre egiteko ebakuntzak egiten ditugun Espainiako zentro pribatu bakarrenetakoa gara"*.

HITZALDIA:

"Aurrerapenak bertigoaren eta hipoakusiaren tratamenduan"

XABIER ALTUNA eta CARLOS SAGA doktoreak OTORRINOLARINGOLOGIA zerbitzua

OSASUN IKASGELAK
POLICLINICA GIPUZKOA



DATA Azaroaren 26an **ORDUA** 19.30 h
TOPALEKUA Eibarko Portalea Udal Kultur Etxea **SARRERA** DOAN



POLICLINICA GIPUZKOA
www.policlinicagipuzkoa.com

San Andres jaiak gerturatzian, aho gozamenerako sasoi betian sartuta gagoz. Sabela betetzeko eta hainbat jaki dastatzeko aukera haundixak dittugu egunotan eta aurreko domekan, eskolarteko makillauaren lehiaketarekin, abiatutakuari lekukua hartu zetsan haraiñegun eta atzo epaitutako Pintxo Lehiaketak, 33 tabernen parte-hartziarekin. Bixar Txistorraren Egunak egun osorako programaziñua prestau dau, makillaua barriro nabarmenduko dan domekia iragarritta: egun horretan Bakillau Kofradixaren Batzarra eta helduendako lehiaketia izango dira. Egun batzuetan atsedean hartu eta hurrengo eguenian beste bi ekitaldi izango dira, zapore munduarekin harremanak estutzeko: Kultuko hitzaldi-dastaketia eta Eibarko Bizikleta Plazako Kasinoko maridajia. Gaztaiñerre jua zan, Chalchak maridaje-afarixeri eutsi detse... Gabonak ez haiñ urrun... Honek ez dauka akaberarik!



Jateko eta edateko, badago aukera!

Atzo zan amaitzekua aurten 33 tabernen lana jaso daben **XI. Pintxo Lehiaketaren** epai-mahai-kuen eginbiharra. Bi egunetan banatuta be, ez da erraza izango halakuetan zein dan onena asmatzia. Oinguan izango da aurretik irabazi daben bate-ronbat balentria errepikatze-ko gauza? Koskor izan zan lehelengo irabazlia 2004an eta honakuak jarraitu detse oiñ arte: Aterpe 2005ian, Aguiñaspi 2006xan, Kultu 2007xan, Ego-Gain 2008xan, Chalcha 2009xan, Iturri 2010ian, Cepa 2011n, Amesti 2012xan eta Foxtter iaz. Aurtengo pintxo- osagarrixeri begiratuta, bakillaua (hainbat eratan), ondduak, odolos-

tia eta basarriko produktuak nabarmentzen dira, *"badira azken momentura arte ingre- dientiak sekretuan gorde da- bezenak be"*, antolatzaillien esanetan.

Arrate Kultur Elkartia, urterik urtera parte-hartzaillien kopu- rua gorantza doian pintxo- lehiaketarekin konformatu bar- rik (oin dala 11 urte, 17 izan zi- ran; aurten markia lortu dabe, 33rekin), urtero lez, **hitzaldi- dastaketia** be antolatu dau, oinguan Mikel Garaizabal eno- loguak eta Oskar Trebiño su- kaldarixak gidatuko dabena. "Arabako olixua eta ardo bal- tza" izango da datorren egue- nerako gaixa eta parte hartu gura dabenak 943-202299 tele-



fonora deittu lei- ke edo arratekultu@gmail.com helbidera jo. Kultuko dastake- ta hori datorren eguenian egin- go da, arratsaldeko 19.00etan hasitta. Preziua, 3 euro. Handik ordubetera, bestalde, **"Kon- trastien Maridajia"** deittuta- kuaren ordua izango da, Eibar- ko Bizikleta Plazako Kasinuan. Hor *"Envite krianzarekin bost pintxo probatuko dittugu, eta pintxo bakotxarekin arduak zapore desbardiña hartuko da- bela antzemango da"*. San Pru- dencio bodegako Ruben Sanz enologua etorriko da eta nahi

dan ardo guztia edan ahal izango da, aurretik parte hartzeko 10 eu- ro ordainduta; aurrez esanda moduan, 20.00etan hasitta.

Txistorraren Eguna bixar

Hamabigarren ediziñora hel- du da, Eibarko Txirindulari El- kartiak antolatuta, egun osua hartzen daben Txistorraren Egunak. Bixar eguerdixan emongo jako hasieria, Pneu- max enpresak eta Amets Txu- rruka txirindularixak egingo daben txotxarekin. Horrekin batera hasiko dira txistorra eta edarixa saltzen: Untzaga pla-

XI. Pintxo Lehiaketako taberna parte-hartzaileak eta euren pintxo- en izenak

Afrikan Haritza... Afrikan sagarra
Aguiñaspi... Egoko txibia
Arkara... Estallido de corral
Ambigu... Zaar
Amesti... Apirilak bost
Anardi... Txanogorritxo
Arkupe... Bocadito de bacalao
Astelena... Milhojas de berenjena
Aterpe... Eibarko gola
Batzoki... Infierno armero
Birjiñape... Cupeake

Bossa... El 8
Boulevard... Flor de bacalao
Cepa... Julits
Depor... Herriko
Foxtter... Bola de foie
Hirurok... Luna de parmesano
Iruki... Montadotxo
Koskor... Maite zaitut
Kultu... Kalikeño
Lau Bide... Amañako udazkena
Maixa... Morcilla con yema

Ongi Etorri... Urrezko koxkatxo
Oishi... Kalamar bokata
Paulaner... Udazkena
Slow... Itsasoa eta mendia
Suberoa... Bakailaoa alioliarekin
Terraza... Astur
Trinkete... Sorpresa
Txoko... Udazken goxoa
Valle... Kapritxo
Zazpi... Txikito berezia
Zubi Gain... Itsasoa eta lurra

Txistorraren Eguna, makillau lehiaketak, hitzaldi-dastaketia eta maridajiak jatekuarekin disfrutatzeko askotariko aukera eskintzen deskue eibartarri

zan, jakiña. Ordu laurden geruago eta handik gertu, Toribio Etxebarria kalia, buruhandiak eta dultzaiñeruak hartuko dabe kalia. 13.00ian Valenciaga Memoriala karrerian etaratako fotografixekin V. Argazki Lehiaketaren sari banaketia egingo da: bi bilduma onenak eta argazki hoberenak jasoko dabe sarixa eta horko irabazlia datorren denboraldiko kartelaren irudixa izango da. Goize-

ko ekitaldixa 14.30xetarako amaittuko da eta arratsaldekoa 18.30xetan hasiko. Dana dala, aurretik Ustekabe txarangia Urkizutik Ipuruara juango da kalejiran (16.00etan urtengo dabe) eta, Eibar eta Real Madrilren arteko partidua amaittuta, Untzaga ingurua girotuko dau 20.00etatik 21.30xetara arte, zozketaren ordua hasi arte. 3.000 euro inguru banatuko dira sarixetan.



Pintxo Lehiaketako epaimahaikuak taberna batian. SILBIA HERNANDEZ

Bakillaua errege etzi

Bakillauaren Kofradixiak 21. Batzar Nagusixa egingo dau domekan. Goizeko 10.30xetan ongi-etorrixa egingo jakue kofrade guztieri eta jarraixan hamarretakua eskinduko jakue Iruki sagardotegixan, handik ordubetera Usartza taldeko txistularixekin kalejiran urtete-ko Portaleraiño. Kultur Etxian kofrade barrixak izendatuko dira eta oinguan, betiko moduan hiru izendatuko badira be, bi Eibarkuak izango dira eta bestia kanpokua: Cofradia del Relleno de Navarrarekin batera, Mikel Urkola abeslarixaren eta Arrate elkarte filatelikuaren merituak gorai patuko dira oinguan. Ekitaldixari amaieria emoteko, urterokuari jarraituta, ohorezko kofradia dan Goruntz abesbatzak kantatuko dau. Ekitaldixa amaittuta, Iruki sagardotegira bueltauko dira barriro han anaiarteko bazkarixa egitteko. Onddorengo dantzaldixarekin datorren urtera arte esango dabe Kofradixakuak.

Bittartian, baiña, eta Untzaga plazan, goizeko 11.00tatik aurrera **bakillau onena prestatzen**



Ruben Sanz enoluga eguenian izango da Kasinuan.

ahaleginduko dira izena emon daben 30 bikotiak. Ordu eta erdi izango dabe euren biharra amaitzeko, orduan hasiko da eta bost lagunek osatutako epai-mahaixa euren lana egi-tten. Aurreko urtietako hiru ma-haikidiekin batera (Belaustegi jatetxeko Josu Mugertza, Urgai-neko Xabier Osa eta Jesus Arto-la sukaldarixak), Josema Azpeitia kazetari gastronomikua eta Basque Culinary Center-eko irakaslia eta Aitor Buendia Ra-dio Vitoriako kazetari gastron-omikua izango dira. Sarixak egongo dira hiru lehelenguen-tzat, 600 euro, txapela eta bes-telakuak tartian.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



Eibar ehuntzen
hari gara
ehildu

Batzar irekia

OSPITAL BERRIAREN ERAGINA

EIBARKO OSASUN ZERBITZUETAN

Azaroaren 25ean, asteartea,

19:00etan, Kultur



www.eibar.ehildu.net bildu@eibar.net Bildu Eibar

@Bildueibar 943708428

GREMIOEN GIDA

ANTENAK

BALATZ c.b.
Instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnua: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,
KONPONKETAK
ETA INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK
barra
raimonibarra@gmail.com
677 51 24 62
943 20 06 97

943 530 356
688 674 242
669 934 964
electricidad
ipareleks.l.
INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
Juan Gisasola, 4 943 257 869
610 532 922

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS
E.I.T.
ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA
info@ajttoficina.com tlf. 943 20 18 30
AJT Zihurtasuna s.l.p.
Toribio Etxebarria, 4 behea A



Informazio gehiagorako



943 20 67 76



GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta mantenimendua

IGELTSEROAK

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Eraikuntza Erreformak Igeltseritza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA

Gasa Kalefakzioa Klimatizazioa Eguzki Energia

Jardines Iturgintza

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANGROHE KANILEN BANATZAILEA ZORU ERRADIATZAILEA EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

PINTURAK

DECORACIONES **AIXA**
José Luis Irionda

Pintura orokorra Margotutako paperak Zoruen kolokazioa PVC zoruak Maketak Alfonbrak Kortinak Etxerakoak Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa. 943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak Pinturak Dekorazioa

Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura, FATXADAK, PINTURA BEREZIAK, ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

Deporreko hiru atleta Irungo krosaren podiumean

Eibarko Klub Deportiboa 25 atletekin izan zen Irungo krosaren 66. edizioan, kros denboraldiari hasiera ematen dion proban. Federatu mailako lasterketetan hiru podium lortzeaz gain, bi domina ere bereganatu zuten eskola mailakoetan. Julen Teranek jubenil mailako proba irabazi zuen eta hirugarrenak izan ziren Aitziber Urkiola nesken absolutoetan eta Txomin Osoro juniorretan. Hamar lehenen artean sailkatu ziren Gorka Kareaga (4.a alebinetan), Naia Saez (8.a infantiletan), Pablo Arakistain (9.a juniorretan) eta Roberto Gartzia (9.a beteranoetan) ere. Absoluto mailari dagokionez, Pello Osoro 15.a izan zen, Iñigo Unanue 35.a eta jarraian sartu ziren Igor Fernandez, Asier Selas eta Jonatan Alustiza (38. postutik 40.era).

Olabeke zelaian jokatu den Bolunburren oroimenezkoa izango dute hurrengo erronka nagusia, abenduaren 14an.



Talde guztiak batuta egin zuten azken argazkia zapatuan. ANDER AZPIAZU

Denboraldi mugitua foballa-zaletuen liga txapelketan

Azken jardunaldiko emaitzekin, gauzak asko estutu dira foballa-zaletuen sailkapenaren goiko postuetan. Durango liderrak galdu egin zuen Azkena Kaltonekin eta Koskor bigarren sailkatuak berdinketarekin konformatu behar izan zuen Esmorgaren aurkako partiduan. Aurretik ere ziurtasun gutxi erakutsi dute talde guztiek eta ezuste bat baino gehiago izan da goiko eta beheko taldeen arteko norgehiagoketan.

Durango eta Koskor daude orain lidergoan berdinduta eta bi puntura jarraitzen dizkiete Sporting Novak-ek, Txokok eta Azkena Kaltonek eta laura dago Esmorga. Asteburu honetan Azkena Kalton eta Bar Txokoren arteko partidua izango da interesgarriena (etzi, goizeko 09.00etan).



Eskubaloiko talde guztien argazkia

Zapatuan senior mailakoen eta harrobiko taldeen denboraldiko argazkiak egin zituzten Eibar Eskubaloikoek. Klubak 15 talde ditu guztira: Somos eta Haritza senior mailako talde biekina batera, jubenil mailako lau (mutilenak eta neskenak, bina), kadete mailako hiru (bat neskena), infantil mailako beste lau (bi mutilenak eta beste bi neskenak) eta alebin mailako bi (neskena eta mutilena).

Bestalde, Huarteri 34-29 irabazi eta gero, Somos Eibarrek sendo jarraitzen du lidergoan, Tolosak baino hiru puntu gehiagorekin eta Santoñak baino laurrekin. Euskal Ligari dagokionez, kadeteak liderrak dira eta jubenilak 3. postuan daude.

Ipuruako gimnastak Espainiako txapelketan

Gaur 18.45etan hasiko dute euren ariketa Ipuruako kadete oinarri taldeko bost gimnastek. Malen Txurruka, Nahia Arguiz, Teresa Miguel, Elena Sudupe eta Elene Varelaren buruetan dago podiamera igotzea Castellón jokoan izango den Espainiako txapelketan. Horretarako prestatu dute bost maza parekin egin beharreko ariketa, urritik hona jokatu dute bederatzi lehiaketetatik zortziretan garaipena eman diena. Aurreko zapatuan Ipuruan jokatu dute San Andres Torneoan, bestalde, bigarrenak izan ziren. Torneo horretan Nafarroako Ritmica Alaia izan zen nagusi senior eta junior mailatan, Deportivo Valladolidek infantiletan eta Sakoneta 1. mailan; gainera, IMD Laredok urrezkoa irabazi zuen alebin oinarrian, Tolosak infantil oinarrian eta Ritmica de Ansoainek kadete oinarrian.



Ipuruia bete egingo da Real Madril hartzeko

Ipuruako sarrera guztiak salduta daude aspalditik bihar 18.00etan Real Madril bisitari izango den partidurako. Lehen Mailako talde boteretsuenaren eta apalenaren arteko partiduak interes berezia piztu du eta, horrela, Tuhu Txinako interneteko ataria babeslea izango da neurketa horretan, Eibar FT-k ekialdeko herrira bidalitako ordezkariarekin adostutako akordioari esker. Hori dela eta, Txinako akzionisten taldea gurera etorriko da bihartik martitzenara arte.



Ia 16 milioiko aurrekontua

Atzo ezin zuten Eibar FT-ren urteroko akzio-dunen batzarra Astelena frontoian lehenengo aldiz. Klubak 456.000 euroko superavit-a aurkezten du azken denboraldian eta 15.830.000 euroko aurrekontua denboraldi

berrirako. Aurten telebistatik ia 14.000 euroko sarrerak izango ditu klubak, aurrekontuaren %85. Gastuetan plantillaren soldatek aurrekontuaren erdia hartzen dute. Gainera, gaur egun dagoen zuzendaritzako kontseilarien kopurua igotzea aurreikusten da.

Derbi bikoitza erregional mailan

Unbek 1. Erregional mailako zazpigarren multzoko gure herriko lau taldeak bildu zituen asteburuan euren artean jokaturako bi partiduetan. Urkomendi 14-k 4-1 irabazi zion Armagiñak-i eta lidergoan sendotu da, Bergara hiru puntura lagata azken honek Soraluzekin 0-1 galdu eta gero. Urkik, bestalde, 2-1 irabazi zion Eibartarrak-i eta sailkapenean puntu bakarrera gerturatu zaio azken honi.

Waterpoloan 10etik 9 partidu irabazita

Asteburu honetan ere irabazle izan dira waterpoloko Urbateko hiru taldeak eta, modu horretan, denboraldia hasi zenetik partidu bakarra galdu dute Eibarko talde guztien artean. Azken jardunaldian senior taldeak 20-11 irabazi zion Hernaniri, hasieratik agintea erakutsita. Kadeteek eta infantilek Larraina izan zuten aurkari eta talde biak nagusitu ziren, 5-14 kadeteen kasuan eta 5-13 infantilean.



Cuevas gaur 100 kilometroko Mundialean

Eibarko atletak Dohan, Qatar-eko hiriburuan, hartuko du parte proba luzeenaren munduko txapelketan. Gaur egungo Europako txapelkunak bi aste eman ditu Lanzaroten proba horretarako egokitzapen prozesuan Jose Carlos Hernandez New Balanceko taldekidearekin entrenatzen. Proba ondo prestatzeko ahaleginetan jardun ondoren, azken egunotan mina nabaritu du abduktorean eta egin dioten ekografian "ezer berezirik ikusten ez bada ere, ez nago gustora" dio Cuevasék. 6 ordu, 38 minutu eta 56 segundotan duen marka, munduko onenetakoa izateaz gain, kilometroko lau minututik behera egingo duela erakusten du.

MILAKA UME PIRRITX ETA PORROTXEKIN GOZATZEN, 848 BAZKIDE

...eta kitto!
ko
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu 11, solairuartea. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com

urteko kuota

- 16 urtetik behera
5 euro
- Lanean dihardut
45 euro
- Langabea, ikaslea,
jubilatua, etxekoandrea
15 euro
- Borondatez, diru
gehiago eman nahi dut
..... **euro**

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____ Herria: _____
Telefona: _____ e-maila: _____
Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____
Kontu zenbakia (20 digito): _____



Etzi zabalduko dute Exfibar

Aurten 45. edizioa betetzen duen sei-lu erakusketa domeka eguerdian inauguratuko dute Portaleko erakusketa aretoan eta orduan banatuko dizkiete sariak erakusketa aretoan ikusgai egongo diren bilduma onenen egileei. Arrate Filatelia Elkarteak urtero prestatzen duen erakusketa gai jakin baten inguruan antolatzen da beti eta aurten nabigazio-instrumentuei eskainitako bildumak ikusteko aukera izango da. Horrekin batera, erakusketaren harira norbaiten omenezko zigilu-marka berezia sortzen dute urtero eta aurtengoa Eibarko Bakillauaren Kofradixari eskaini diote. Jose Angel Lopezek sortutako zigilu-marka bakarrik domekan ipiniko dute, 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara. Exfibar 2014 erakusketa hilaren 29ra arte bisitatu daiteke, baina argi ibili, ordutegi berezian zabalduko dutelako: astelehenetik barixakura, 18.00etatik 20.00etara; eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.



EXPOSICION
FILATELICA
XLV
SEILU
ERAKUSKETA



COFRADIA
DEL BACALAO
EIBAR
23 Noviembre 2014

Euskararen Eguna abenduaren 3an

Herriko euskalgintzak Euskararen Eguna antolatzen elkartzen dihardu eta, honez gero, egitaraua zehaztuta dute. "Euskarak 365 Egun Eibarren" goiburuekin arratsaldeko 19.00etan ekingo diote egitarauari. Ordu horretan, Toribio Etxebarrian, anbulatorio parean dagoen lorategi txikian elkartzeko deialdia egin dute antolatzaileek. Bertso-manifestua irakurri eta gero, kalejira egingo da Untzagaraino. Parte-hartzaileei argia ematen duen zerbait eraman dezatela es-

katzen diete antolatzaileek: kandelak, linternak, frontalak... Untzagan, harmailen aldean, kandlekin aurtengo leloa osatuko da, eta "Behin betiko" kantua abestuz eta "Euskaraz bizi nahi dut" kantuen doinuarekin dantza eginez amaituko da eguna. Euskalgintzako taldeak eibartar guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte: herritarrak orohar, kultur, kirol eta musika taldeak, ikastetxeak, dendari eta tabernariak...

Bulgaria eta Australiako txotxongiloak

Titirijai 2014 Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren harira, urteroko moduan atzerriko taldeen txotxongilo emanaldiekin gozatuko aukera izango dugu aurten ere. Bihar 17.00etan Bulgariako PT Burgas konpainiak Coliseoan taularatuko duen "Tumba Lumba" umeendako ikuskizunak ekingo dio aurtengo egitarauari. Hristina Arsenovak zuzendutako lana talde horrek sortutako ikuskizunik berriena da eta, Bulgariako folkloreko instrumentu tradizionalak konbinatuta, antzezleak umeak zein helduak liluratzeko moduko emanaldia eskaintzeko prest igoko dira taula gainera. Sarrerak 5 euro balio du eta emanaldia hasi baino ordu bete lehenago zabalduko duten Coliseoko leihatilan erosteko aukera egongo da.



Titirijai jaialdiaren barruan antolatutako bigarren emanaldia martitzenean eskainiko dute, 15.00etatik aurrera Hezkuntza Esparruko aretoan: Australiako Perth Theatre Company taldeak "Las aventuras de Alvin Sputnik", animazioa, txotxongiloak, proiektzioak eta musika batzen dituen izenburuko ikuskizuna aurkeztuko du. Sarrera doan izango da.

Banatu dituzte Javier Agirresarobe sariak


Zapatuan banatu zituzten Plano Corto elkarteak antolatutako Asier Errasti Laburmetraia jaialdiko sariak, Portaleko areto nagusiak hartu zuen ekitaldian: aurtengo edizioko Javier Agirresarobe saria "El amor me queda grande" (Javier Giner) lanarentzat izan da eta bigarrena "Sero-ri" (Pedro Collantes) lanak jaso du. Euskerazkoen artean Aitor Arregiren "Zarautzen erosi zuen" saritu zuten. Animazioan, "Canis" (Marc Riba eta Anna Solanas). Eta Eibarko hiru finalisten artean Cruz Noguera-sek zuzendutako "Colillas" lana hautatu zuen epaimahaiak. Saritutako lanean ageri diren protagonistak Mainer Albizu, Ane



Ruiz, Maria Rios, Eguzki Arginzoniz eta Maitte Garcia eibartarrak dira; edizioa eta muntaia Mikel Bustamantek egin ditu eta soinuaren ardura, berriz, Unai Zorriketak eta Aratz Zarandonak izan dute.

San Andres bertso jaialdia domekan

"Bat-batean, munduko musikekin bertsotan" izenburuarekin dator aurten ...eta kitto! Euskara Elkartearen bertso-jaialdia. Arratsaldeko 18.30etan izango da Portaleko areto nagusian eta bertan, Oskar Estanga eta Jon Martin bertsolariek, musika estilo desberdinekin inprobisatuko dute: samba, zona, tangoa... Jaialdia hasi aurretik, 18.00etan, bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dira. Manu Goiogana irundarra izan da nagusien mailan irabazlea (300 euro eta txapela) eta Aimar Goenaga eibartarra bigarrena (250 euro eta plaka). 16 urte-tik beherakoen artean, Iturburuko Malen Suarez izan da irabazlea (txapela eta liburua) eta Arrateko Andra Mari ikastetxeko Pablo Santos bigarrena (plaka eta liburua).



Santa Zeziliaren omenezko emanaldiak

Bihar, azaroak 22, Santa Zezilia musikarien babeslearen eguna izango da eta, urteroko moduan, herriko musikariek saio eta emanaldi bereziak eskainita omenduko dute euren zaindaria. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoek eguzten arratsaldean, Untzagatik Portalera bitartean kalejira dotorea eginda eta amaitzean txokolate-jana ederra eginda ospatu zuten Santa Zezilia euren patrioiaren eguna. Bide batez, eskolako irakasleek, "txokolatea prestatu zuten gurasoei eskerrik beroena" helarazi nahi diete.

Herriko musikariek asteburuan Santa Zezilia ospatzeko emanaldiekin jarraituko dute eta, urteroko moduan, Cielito Musika Bandak "serenata" eskainiko du zapatu gauerdiko kalejiran. Eta domekan musika bandak eta Sostoa abesbatzak elkarrekin jardungo dute estreinekoz Coliseoko taula gainean, 12.30etan hasiko den kontzertuan.



Museoa asteburuan zabalik

Ohiko ordutegitik kanpora, goizez eta arratsaldez zabalduko dute Armagintzaren Museoa asteburuan, zapatuan zein domekan. Egun bietan 10.00etatik 13.00era eta 16.00etatik 20.00etara zabalduko dute Portaleko bosgarren pisuan dagoen museoa, nahi duenak bisitan joateko aukera izan dezan. Aste honetan, martitzen arratsaldean Eibar Kirol Elkartekoek museoa eza-gutzeko bisita egin zuten. Bestalde, hilaren 27an 19.30etan "Eibar Industrial 2014" erakusketan inauguratuko dute eta ate irekiak egingo dira egun horretan hasi eta abenduaren 7ra arte.



laburrak

ELI LAKUESTAREN LIBURUA

Kontrargi Soraluzeko argazki taldeak liburua eman du argitara Eli Lakuestaren bildumako 125 argazkirekin. Harpasuak saileko bigarren liburuan 50. hamarkadatik 70.era bitartean egindako argazkiak jaso dituzte, gehienak Soraluzekoak, baina badaude Eibarren ateratako batzuk ere. Calbeton kaleko optikan erosi daiteke liburua, 10 eurotan.



"ATXIA MOTXIA"

Azaroaren 28an, 18.00etan aurkeztuko dute Coliseoan "Atxia motxia", Ego Ibarra batzordeak umeentzat argitaratu duen koaderno. Ekitaldian Patxin eta Potxin pailazoen koaderno horretan oinarritutako emanaldi berezia eskainiko dute. Sarrerak euro bi balio du eta erosteko Coliseora joan daiteke (gaur 21.00-22.00) eta astelehenean (19.00-20.00) edo, bestela, Kutxabank-en ere salgai daude.

FELISA URZURIAGA UGARTEBURU

2014ko azaroaren 5ean hil zen, 86 urterekin

**"Zure irribarre eta samurtasuna
BETIRAKO izango dira gure artean"**

**FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
GURE NAHIGABEAN LAGUNDU DIGUZUEN GUZTIOI
ETA HILETA-ELIZKIZUNERA JOAN ZINETENOI.**



62 artista Aire Zabaleko pintura lehiaketan

Aurreko domekan XXXVII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa egin zen gurean, Eibarko Artisten Elkarteak udalaren laguntzarekin antolatuta eta, euria egin zuen arren, goiz osoa kalean margotzen eman zuten lehiakideek 62 lan entregatu zituzten. Margolanen "kalitatea eta gaien aniztasuna" azpimarratu duen epaimahaiak sari hauek banatzea erabaki zuen atzo bertan: helduen mailan, lehen saria Jon Idigoras Mugerza ermuarrak

jaso du eta beste sariak Diego Fernandez Columek (Xixon), Carlos Baudillok (Bilbo) eta Leticia Gaspar Garciak (Plentzia) eraman dituzte, hurrenez hurren. 18 urtera artekoen mailan, lehen saria Irati Cobok irabazi du eta bigarrena Jone Lopezek. Eta 12 urtera artekoen artean, irabazleak Malen Azurmendi eta Harea Zuazubizkar izan dira. Gazteen maila bietako irabazle guztiak eibartarrak dira.



ANDER AZPIAZU

Ebarko mugarririk sarean

Atzo aditzera eman zuten, "Eibarko mugarririk: ikerketa-lana eta landa lana" sarean, www.egoibarra.com webgunean ikusgai ipiniko dute Ego Ibarra batzordekoek. Julian Etxeberria, Periko Iriondo eta Angel Treviño Klub Deportiboko kideek egindako lanak gure udalerriko mugarririk guztien egoera jasotzen du. Interneten eskuragarri ipinitako lana egiteko, lehenik eta behin Udal Artxiboan zeuden mugarririk aktak aztertu zituzten eta, ondoren, lan horri zegokion landa-lana 2013ko urtariletik maiatzera bitartean egin zuten, jarraian, 2013ko maiatzaren 31n Ego Ibarra batzordean aurkezteko.

Sarean formatu guztietarako (tabletetarako, mugikorretarako...) kaleratu dutena lan horren emaitza da. Lana kontsultatzen duenak mugarririkaren zenbakia eta izena (Euskaltzaindiak onetsia), koordinadak eta zein alturatan dagoen ikusiko ditu beste ezer baino lehen. Eta, hortik aurrera, mugarririk bakoitzaren fitxa osoa eta argazkiak agertuko dira: harri-mota, harriaren itxura, inskripzioak, mugarririk herri-artekoa edo probintzien artekoa den, leku-izena, zein egoeratan dagoen eta aurreko mugarririk zenbat metrora dagoen. Euskarazko testua Mikel Ziorraga Urizar eibartarrak egin du.



Atzo udaletxean emandako prentsaurrekoaren irudia. SILBIA H.

Gurasoak Berbetan-eko txikiak antzezle



Ederto pasa zuten aurreko barixakuan Gurasoak Berbetan-eko saiora etorritako ume eta gurasoek. Hilean behin, barixakuetan, ...eta kitto!-n egiten diren tailerren barruan, "7 antxumeak"

antzezlanak eskaini zieten umeek gurasoei. Hurrengo tailerra abenduan egingo dute, gabonetako apaingarriak nola egin ikasteko. Gurasoak Berbetan euskera praktikatu nahi duten gurasoei eskainitako programa da, eta astean behin elkartzeko dira euskeraz berba egiteko. Horrez gainera, eurentzat eta euren seme-alabentzat propio sortutako ekimena da Barixakuen Jolasian izenokoa.



- Hortzak zuzendu
- Artikulazioko minak tratatu
- Piorrea prebenitu
- Kirol errendimendua hobetu

AHO ETA GORPUTZEKO
OREKA BERRESKURATU

Arragueta, 2-bis B (behea c)
Tel. 943 048 773
orekahl@yahoo.es



Asier Serranoren 3 diskoak



"Ez Esan Inori"



"Gerrari bai"



"Hoteleko kantuek"

10 eurotan ...eta kitto-ko bulegoetan

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, BERNART, bixar zortzi urte egingo dozuz-eta. Egun ona izan!



Zorionak, INTZA, domekan zortzi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, NEREA, gaur 12 urte egitten dozuz-eta. Muxu potolua famelixaren partez.



Zorionak, LUAR, etxeko Printze Txikixa! Jarraitu irudimen hori lantzen eta elefantia boaren sabelian ikusten. Amamen eta aitixen partetik.



Zorionak, ORIOL, San Andres egunian hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, UNAI, astelehenian hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu bat aitatxo, amatxo, June eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LUKA, NOAH eta AMATXO! Gero eta potxoluago zagozie eta jarraitu holan! Patxo haundi bat Peio eta aitatxoren partez.



Zorionak, MARKEL, gure etxeko bizipozak hiru kandela ditutu aurten amatatzeko-eta! Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, BENAT-en partez.



Zorionak, ARRATE, zure 50engaittik... Segi oiñ arte bezain, "estupenda"!!!

hildakoak

- Manuel Montero Rivas. 67 urte. 2014-X-30.
- Angela Tena Tena. 72 urte. 2014-XI-13.
- Jose Hernandez Gonzalez. 69 urte. 2014-XI-14.
- Florentina de Blas Navas. 87 urte. 2014-XI-15.
- Eusebio Muniozguren Narbaiza. 85 urte. 2014-XI-15.
- Maria Becerra Gonzalez. 87 urte. 2014-XI-16.
- Juan Elgezabal Olaeta. 94 urte. 2014-XI-17.
- Javier Ugarte Atxotegi. 79 urte. 2014-XI-17.
- Faustino Lazkano Aizpurua. 92 urte. 2014-XI-19.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
22an: 19.45. 22.30
23an: 20.00
24an: 20.30

"Amor en su punto"
 Zuzendaria: Dominic Harari



(2 ARETOAN)
22an: 19.45. 22.30
23an: 17.00, 20.00
24an: 20.30

"La ignorancia de la sangre"
 Zuzendaria: Manuel Gomez



(ANTZOKIAN)
22an: 19.45. 22.30
23an: 17.00, 20.00
24an: 20.30

"Los juegos del hambre"
 Zuzendaria: Francis Lawrence



(1 ARETOAN)
22an: 17.00
23an: 17.00

"Los cinco y la isla del tesoro"
 Zuzendaria: Mike Marzuk



HOROSKOPOA

ARIES
 Aspertuta zaude asteburero gauza bera egiten? Behingoatiak proposatu zuk zoezer! Horrela, ez zara kexatuko.

TAURUS
 Ezin dira gauzak erdizka esan! Argi eta garbi berba egizu, gatazkak sortu nahi ez badituzu. Hobeto joango zaizu!

GEMINI
 Gogoratu ezin duzula egin beti zuk nahi duzuna eta besteen iritziaz kontutan hartu. Entzuten ikasteko ordua duzu.

CANCER
 Osasu arazo txikiak izango dituzu aurki, baina ezer larririk ez. Zaintzea gomendatzen dizut, ondorioengatik.

LEO
 Dagoeneko ez zaude pertsona horrekin maiteminduta, ezta? Azkar ibili, bestela biontzat mingarriagoa izango da-eta.

VIRGO
 Ura edatea ona dela entzun duzu eta egun osoa ematen duzu edaten eta, jakina, komunean. Dena neurrian da!

LIBRA
 Kritikak onartzen ikasi! Gehienetan ez dituzu ondo hartzen-eta. Jakizu hobe beharrean egiten dizkizutela.

SCORPIUS
 Ezustez betetako astea izango da hau. Lasai egon, denak onak izango dira-eta, lagunekin une zoragarriak bizitzera.

SAGITTARIUS
 Luzaroan zain egon eta gero, domekan horrenbeste desiatzen egon zarena lortuko duzu. Ahal duzun beste gozatu!

CAPRICORNIUS
 Asteburuan primeran pasatuko duzu, aspaldiko lagunekin elkartu eta barre egiten txikitako gauzekin oroitzen.

AQUARIUS
 Ez sinistu kalean entzuten duzun guztia: gehienetan txutxumutxuek ez dute ganorazkorik atzean. Kritikoagoa izan.

PISCIS
 Batzuetan gauzak ez dira espero genuen moduan iritetzen eta pelperrikakoa izaten da errudunak topatzen ibiltzea. Lasai!

BARIXAKUA 21

GAZTELEKUA

16.30. Mosaikoak (argazkiak ipintzeko markoak) egiteko tailerra. Indianokuan.

TERTULIA LILA

18.00. Indarkeria matxistaren inguruko tertulia (gaztelera). Sarrera librea. Andretxean.

ZAPATUA 22

MUSEOA

10.00/13.00 eta 16.00/20.00. Armagintzaren Museoa ordutegi berezian zabalduko dute. Museoa (Portaleko 5. pisuan).

TXISTORRAREN EGUNA

12.00. Txapligoak eta ekitaldi hasiera. Txotxa, Pneumax eta Amets Txurrukaren eskutik. Txistorra eta edariaren salmenta. Untzagan.
12.15. Buruhandi eta dultzaineroak. Toribio Etxebarria kalean.
12.30/14.30. Elgoibarko dultzaineroak. Untzagan.
13.00. 2014ko Valenciaga Memorialeko V. Argazki Lehiaketako sariak.
15.00. Atsedendia.
16.00. Ustekaberen kalejira, Urkizutik Ipurua.
18.30. Txistorra eta edariaren salmenta.
20.00/21.30. Ustekaberen kalejira, Ipuruatik Untzagara.
21.30. Zozketa. Untzagan.

TITIRIJAI 2014

17.00. "Tumba Lumba", umeendako txotxongiloak, Bulgariako PT Burgasen eskutik. 5 euro. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17.00. Mosaikoak (argazkiak ipintzeko markoak) egiteko tailerra. Indianokuan.

ZINEA

17.30. "Campanilla, hadas y piratas". El Corte Inglesean.

DJ-A

18.00. DJ saioa. El Corte Inglesean (2. solairuan).

KONTZERTUA

21.00. Burn in hell (Melbourne, Australia) taldea. Beleko tabernan.

KONTZERTUA

23.30. Cesar Crespo & The Pinball Blues Party taldearen kontzertua. Ez Dok tabernan.

SANTA ZEZILIA

00.00. Santa Zezilia serenata, Cielito Musika Bandarekin.

DOMEKA 23

MUSEOA

10.00/13.00 eta 16.00/20.00. Armagintzaren Museoa ordutegi berezian zabalduko dute. Museoa (Portaleko 5. pisuan).

BAKILLAU KOFRADIXIA

10.30. Batzar nagusira etorritakoei ongietorria eta hamarretakoa. Iruki sagardotegian.
11.30. Usartza txistulari taldeak lagunduta, Portaleraino kalejira, XXI. Batzar Nagusia egin eta ohorezko kofradeak izendatzeko. Goruntz abesbatzaren emanaldia. Portalean. Bazkaria Iruki sagardotegian.

BAKAILAO TXAPELKETA

11.30. XXII. Bakailao Txapelketa. San Andres Saria. Untzagan.

SANTA ZEZILIA

12.30. Santa Zezilia kontzertua, Sostoa abesbatzaren eta Cielito Musika Bandaren eskutik. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17.00. Mosaikoak (argazkiak ipintzeko markoak) egiteko tailerra. Play / Wii. Indianokuan.

BERTSO JAIALDIA

18.30. "Bat-batean, munduko musikekin bertsotan", Oskar Estanga eta Jon Martinekin. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Aurretik, 18.00etan, San Andres bertso-paper lehiaketako sari banaketa. Sarrera: 5 euro. Portalean.

MARTITZENA 25

INDARKERIA MATXISTAREN KONTRA

10.00/13.00 eta 16.00/19.30. Informazio-karpa: "Azaroak 25 eta genero indarkeria". Mujeres Al Cuadrado taldeak antolatuta. Untzagan.
19.00. Elkarretaratzea, Emakumeen kontrako Indarkeria gogoratzeko Nazioarteko Eguna dela eta. Untzagan.
20.00. "La maquina del dueño" antzezlan, Plataforma Tiranteren eskutik. Portalean).

TITIRIJAI 2014

17.00. "Las aventuras de Alvin Sputnik", umeendako ikuskizuna. Doan. Hezkuntza Esparruan.

JOSKINTZA TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

EIBAR K.E.

17.30. Eibar KEko Javi Larak eta Albentosak taldearen txartelak sinatuko dituzte. El Corte Inglesean (kirol sailean).

EGUAZTENA 26

5. URTEURREN JAIA

18.00. El Corte Inglesaren 5. urteurrena ospatzeko jaia: merkataritza guneko fatxada apaintzeko argiak piztea, Ipurua dantza garaikidearen koreografia, bezeroen artean banatzeko tarta erraldoia... El Corte Inglesean (beheko solairuko sarreran).

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

HITZALDIA

19.30. "Patologias del oido interno. El vertigo y las alteraciones del equilibrio", Carlos Saga eta Xabier Altuna Poliklinika Gipuzkoako sendagileen eskutik. Portalean.

EGUENA 27

AZOKA

17.00/21.00. Etxebizitzak eraberritzeko eta birgaitzeko, sektoreko enpresen eskaintza. Untzagan (karpan).

PEPPA PIG

18.30/20.00. Peppa Pig bisitan. El Corte Inglesean (beheko solairuan).

LIBURU AURKEZPENA

19.00. "Viaje al centro del corazon", Leticia Martinez-Alcocerrek idatzitakoa. Liburutegian.

HITZALDI-DASTAKETA

19.00. "Arabako olio eta ardo beltza", Mikel Garaizabal enologoak eta Oskar Trebiño sukaldariak gidatuta (3 euro). Arrate Kultur Elkartearen.

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

MARIDAJEA

20.00. Envite-rekin bost pintxo dastatzeko maridajea, San Prudencio arandegiko Ruben Sanz enologoarekin. Prezioa: 10 euro. Eibarko Bizikleta Plazako Kasinoan.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Azaroaren 29ra arte**
EXFIBAR 2014 XLV. seillu erakusketa. Ordu-tegi berezia: astelehenetik barixakura (18.00-20.00), zapatu eta domeketan (12.00-14.00 eta 18.00-20.00). *Portalean.*
- ✓ **Azaroaren 30era arte**
MARIANO CANO-REN argazki erakusketa. *Klub Deportiboan*
BAKARNE ELEJALDEREN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
MIGUEL CABEZAS-EN argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan*
- ✓ **Abenduaren 27ra arte**
ROBERTO ZAMANILLO ARNAIZ-EN mikologia argazkien erakusketa. *El Corte Inglesean.*

ikastaroak

- ✓ **3D inprimatzeari buruzko ikastaroa**
Noiz eta non: **Azaroaren 24tik aurrera.** Lehen astean, astelehenetik eguenera (17.00-20.30) eta bigarren astean, astelehen eta martitzen astean, (17.00-20.00) -20 ordu guztira. Izen-ematea eta informazioa: www.armeriaeskola.com helbidean.
- ✓ **Istripuen ekiditea eta lehen sorospenak haurtzaroon**
Noiz eta non: **Abenduaren 1etik 5era.** Astelehenetik barixakura (10.00-12.00), DYA-ko ordezkari-tan (Pagaegi, 5). Izen-ematea eta informazioa: info@DYAgipuzkoa.com helbidera idatzita edo **943464622** telefonora deituta (matrikulak 60 euro balio du).

farmaziak

- ✓ **barixakua 21**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **zapatua 22**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **domeka 23**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **astelehena 24**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **martitzena 25**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguztana 26**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguna 27**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **barixakua 28**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI

Azkue (T. Etxebarria, 4)



4	6	3						
		1			5			
7				2	6	3		
		6		5	8		9	
	3		1	7		5		
		7	9	6			1	
			2			9		
						6	8	7

SUDOKUA

7	9	4	8	5	1	3	2	6
1	2	5	3	6	4	9	8	7
6	3	8	7	2	9	1	5	4
9	4	6	2	8	3	7	1	5
8	1	7	6	9	5	4	3	2
2	5	3	4	1	7	6	9	8
5	8	9	1	7	6	2	4	3
4	7	1	5	3	2	8	6	9
3	6	2	9	4	8	5	7	1

AURREKOEN EMAITZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARRO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARRO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Eguzkerak: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Eguzkerak: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Eguzkerak: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Eguzkerak: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Eguzkerak: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Eguzkerak: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Legarre, 7an. Bigarren solairuan. Igogailua eta berogailua. 120.000 euro (ordainketarako erraztasuna). Tel. 685-172172.

1.2. Errentan

– Apartamentua alokagai Eibarko erdialdean. Lagun batendako edo birendako aproposa. Tel. 653-727067.
– Pisua alokagai Tiburtzio Anitua kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Eguzkitsua. Berrituta. Tel. 662-105257.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Urkizu-Jardiñeta inguruan. 2/3 logelakoa. Tel. 602-490595.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Ardatzako geltokian. Haundia. 100 euro. Tel. 647-952677.
– Gazteendako lokala hartuko genuke Ipurua, San Kristobal eta Abontza inguruan. Tel. 685-726084.

3. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da sukaldean lan egiteko (14 urteko esperientzia) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 688-682398.
– Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-259560.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
– Neska euskalduna eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-502567.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Gidatzeko baimena. Tel. 631-343232.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 629-231233.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta informeak. Ordutegi malgua. Tel. 669-956495.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketara lan egiteko. Tel. 632-441528.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 631-417995.
– Gizonezkoa eskaintzen da sukaldean, ilea-paindegian edo okindegian laguntzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 602-055032.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 603-740755.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-800519.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-811263.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

Tel. 608-523426.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197217.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 650-513412.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 697-372374.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-910991.
– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Ingeles maila altua. Tel. 632-695273.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-436363.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 665-216932.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-683176.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 665-686786.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-314559.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 606-859448.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 637-406227.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketara lanak egiteko. Orduka. Tel. 632-045973.
– Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 655-677035.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa edo orduka. Tel. 648-180233.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gida baimena eta erreferentziak. Interna. Tel. 631-343232.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 631-705406.
– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-820429.
– Emakume arduratsua eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-970524.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-567680.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-942816.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 674-342769.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 652-047799.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 653-811764.
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko edo eskolara eramateko. Tel. 606-187556.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 680-121252.
– Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko. Baita umeak zaindu eta garbiketarako egiteko ere. Tel. 674-713262.
– 29 urteko emakume euskalduna, unibertsitate ikasketekin, eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan lan egiteko. Tel. 646-369330.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 633-244397.
– Erizain laguntzaile eibartarra eskaintzen da goizez orduka nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-607121.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-846244.
– Geriatria titulua daukan emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 652-532589.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-395829.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan orduka zein interna lan egiteko. Tel. 602-186462.
– Gizona eskaintzen da lan egiteko. Tel. 628-740765.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-800519.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Orduka. Tel. 686-262593.

4.2. Langile bila

– Ofizial elektrikaria behar da, esperientziarekin. Kurrikuluma bidali: electricista214@hotmail.com
– Pertsona arduratsua eta esperientziaduna behar dugu laster Amañan zabalduko den degustazioan lan egiteko. Erreferentziak kontutuan hartuko ditugu. Kurrikuluma eta argazkia bidali: yolitavaz@gmail.com
– Kamarera/o behar da egun guztirako eta kamarera/o behar da extrak egiteko. Curriculum-a bidali: eibarkafe@gmail.com
– Kamarera/o behar da extrak egiteko. Tel. 670-541347 eta 943-750030. Oskar.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– DBH eta Batxilergoko Matematika etabarreko klaseak ematen dira. 1 edo 3 ikasleren taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
– Ingeleseko klase partikularrik ematen dira, 4 urtetik aurrera. Talde mugatuak. Esperientzia EEBB-etan eta Euskal Herrian. Tel. 651-706303.
– DBH, Batxilergo eta Heziketa Ziklotarako prestakuntza. Matematikak, Ekonomia, Fisika, Kimika, Euskera, Ingelesa, Gaztelania eta Estatistika. Tel. 685-739709 eta 943-127365.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– 80 bat binilo disko salgai, 80. hamarkadakoak eta dance-musikakoak. 200 euro. Tel. 628-714824.
– Wii "u"-rako jokoak salgai. "Mario y Sonic en los juegos olímpicos de invierno 2014". Zabaldu gabe. Tel. 617-256466.
– Organo elektronikoa salgai. 600 euro. Inprimagailua opari. Tel. 616-533796 eta 943-752480.

6.2. Eman


– Telebista oparitzen da. Tel. 943-203374.
– Gaixo/nagusiendako ohe artikulatu berria eskaintzen dute Caritasekoek, behar duenak erabili dezan. Tel. 943-202509.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Azaroaren 7an, barixakuan, skate beltza galdu genuen. Azpian marrazki larrosak dauzka. Norbaitek aurkitu badu, deitu mesedez. Tel. 627-307168.
– Ezkontza-eraztuna aurkitu genuen Isasi inguruan urriaren 17an. Izena eta data grabatuta. Tel. 650-300906.

6.4. Bestelakoak

– Eibar-Sahara Elkarteak mugikorraz jasozen dihardu, abenduan kanpamentuetara bidaltzeko. Telefonoak entregatzeko Guridi tabernara joan behar da.



5ean pentsatzen? Hyundai Cinking.

5 zenbakia buruan izateak, lasai egotea esan nahi du, Cinking egotea. Horregatik, Hyundai-ren Cinking-ekin, datozen 5 urteotan zure Hyundai-z gozatzea, besterik ez duzu buruan izango.

- 5 urteko garantia km mugarik gabe
- 5 urteko asistentzia errepidean
- 5 urteko mantentze-lana
- eta orain Hyundai i30 eguneko 5€-gatik

5€ /eguneko (150€ hilean)	60 kuota	Zordun-tasa: 7,75%
	Sarrera: 4.057,40€	UTB: %9,46

Hyundai i30 5p 1.4 MPI (100CV) ESSENCE-rako eskaintza

NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.

OARSO CAR ELGOIBAR
HYUNDAI KONITZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
943 74 14 80
Olaso Polig., 17.



Hyundai i30 Gama (bost ate).
CO2 Emisioak (gr/km): 109-145.
Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,1-6,0

Hyundai i30 5p 1.4 Mpi (100CV) ESSENCE-rentzat finantziazio adibidea. Prezioa eskura ordainduta 11.499,00€. Sarrera 4.057,40€. 60 hileko epea, 148,29€-ko kuota 1 eta 150,00€-ko 59 kuota. Zordun Tasa Finkoa %7,75, T.A.E. %9,46 (T.A.E.-ak eta lehen kuotak aldaketa txikia izan dezakete kontratua sinatzeko egunaren eta kuotak ordaintzeko egunaren arabera). Irekiera komisioa %3,00 223,29€, eskura. Kreditorearen Zerbateko Osoa 1.779,98€. Zordundutako Zerbateko Osoa 9.221,58€. Kontratazio eguna 2014/09/09 eta lehen ordainketa 2014/10/05 izanik. 2014/11/30era arte balioko du eskaintza honek. Santander Consumer, E.F.C., S.A.-ren eskaintza, bere azterketa eta onarpenari lotutakoa. Penintsulan eta Balearrean bizi direnentzako eskaintza. Matrikulazioa, promozio-deskontua, konzesionarioaren ekarpena eta PIVE G Plana (Gobernaren PIVE Planaren baldintzak betelzeari lotutakoa) barne. Zehaztaspen eta baldintzei lotutako Cinking Programa. Ibilgailuaren finantziazioari lotutako mantenimendua. Begiratu Hyundai.es/cinking-en.



Eskerrik asko danoi!

EGITARAUA: Azaroak 22: DJ-a, 2. solairuan, 18:00-19:30. Azaroak 25: Eibar KE-ko jokalariek txartelak sinatuko dituzte. Azaroak 26: 5. urteurren jaia, beheko solairuko sarrera, 18:00. Azaroak 27: Peppa Pig dator!, beheko solairuko sarrera, 18:30-20:00. Azaroak 28: Ezagutu Puppi pertsonaia!, beheko solairuko sarrera, 18:30-20:00. Abenduak 4: Gizonendako moda desfilea, beheko solairuko sarrera, 19:00.

vinos Solera Eibarresa

Ardo, Garagardo eta Likore Banaketa

Solera Eibarresaren
75. urteurrenagatik,
Sanandresengatik,
Eibar KEren
arrakastengatik,
Gabonengatik,

... TOPA ELKARREKIN!!!



45€

Salmenta-puntuak:
www.vinosconsolera.com
Ibur Erreka z/g EIBAR
943201353
soleraeibarresa@telefonica.net
EDO GALDETU OHIKO TABERNAN



**Eta, ez galdu
Gabonetako
OUTLETA!**

**Abenduaren
13, 20 eta 27an
10:00etatik 14:00etara
SOLERA EIBAR-
RESAREN
BILTEGIAN**